



OSASUN SAILBURUAREN AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ EUSKADIKO OSASUN PUBLIKOAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN DEN

Euskadiko Osasun publikoaren Lege-aurreproiektuaren elaborazioari ekingo dio Osasun Sailak.

Izaera orokorreko arau-xedapenak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, aldez aurreko kontsulta-izapidea erabaki zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133 artikulua 1. apartatua xedatutakoa betetzeko, zehazki, herritarrekin duen interakzio-izapideari bidea emateko, zeina arau-testu juridiko zehatz bat onartu aurretik egin behar den.

Alderdi hauek bildu behar ditu kontsultak:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- Arauaren helburuak.
- Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Horregatik guztiagatik, hoguei egun baliouduneko epea ezarri da, ukitutako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egoki iruditzen zaizkien iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten. Araua egin aurretik gauzatu da, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasierako fasearen barruan.

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuak eskuordetutako eskumenen arabera, hauxe

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Ekimena gauzatu baino lehen, Euskadiko Osasun publikoaren Lege-aurreproiektuaren aldez aurreko kontsulta izapidetzea.

Bigarrena.- Arauak ukitutako herritarrek, erakundeek eta entitateek, hala iritziz gero, planteatutako alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete Agindu honen eranskinean, hoguei egun baliouduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko web-atarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Osasuneko sailburua
Gotzone Sagardui Goikoetxea

ERANSKINA

1.- Ekimen honen bidez konpondu nahi diren arazoak

Lege-aurreproiektu honen bidez, Osasun Publikoaren Sistema taxutu eta antolatu nahi da, osasun publikoaren arloko egungo erronkei erantzun integral, egoki eta eraginkorra emateko; erronka horiek, egungo pandemiaren esperientziaren ondoren, areagotu egin dira, etorkizunean antzeko egoerak gertatzeko arriskua dagoelako. Horrela, Euskadiko pertsonen osasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea indartzen da.

2.- Ekimena onartzeko premia eta aukera

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean ezarritakoaren arabera, herritarren eskubideak xehatzen ditu osasun publikoaren arloan, baita Osasun publikoaren Sistema osatzen dituzten administrazioei dagozkien laguntzak, jarduketak eta esku-hartzeak ere (Eusko Jaurlaritza, udalak eta foru-aldundiak). Jarduketa horietan, ardatz iradokitzailezt hartuko da OSASUNA POLITIKA GUZTIETAN printzipioa; eta, horren arabera, sektore publiko osoaren ekintzaren zatia izan behar dute pertsonen osasunaren aldeko politikak, ez soilik osasun sektorekoa. Eta arreta berezia eskainiko zaio izurrite edo pandemia berriak izateko arriskuari.

3.- Landu nahi den arau-proiektuaren helburuak

- Osasuna politika guztietan estrategia eta osasunaren gizarte-baldintzatzaileen ikuspegia hartzea, osasun arloko munduko eta Europako lehentasunak jarraituz.
- Pertsonen osasuna eta ongizatea sustatzea, jarduketan orientazio komunitarioa eta sektoreen artekoa lehenetsiz.
- Herritarren osasun eta ongizatearen arloan, administrazio publikoen arteko lankidetzaren indartzea, tokiko esku-hartzeetan areagotuz.
- Erkidegoak, gizarte-mugimenduak eta gizarte-zibila sartzeko esku-hartzeen plangintzan, garapenean eta ebaluazioan.
- Pertsonen osasunean duen inpaktua eta politika sektorialen ingurune fisikoaren gaineko afekzioak aztertzea.
- Eta, lankidetzako ikuspegi batetik, administrazio publiko guztien koordinazioan lan egitea, baita tarteko bestelako eragileekin batera, osasunaren eta bizimodu eta inguru osasuntsuen sustapena bultzatzeko, eta eragin positiboa edukitzea osasunaren gizarte faktore erabakigarrietan.

4.- Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak

Aurreko apartatuetan adierazitako gorabeherak ikusita, beharrezkotzat jotzen da lege-aurreproiektu hau egitea, ezin baita hauteman bestelako irtenbiderik.